2.ⁿ URTEA

IBAIZABAL

67ⁿ GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Jorrailla-ren 12ⁿ | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdialerrian, sei peseta urtean.** Gnei **Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1903-ko Jorrailla-ren 12ⁿ

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

JESUS-EN PIZTUERA

Irugarren eguna zan Jesus maitagarria illtzala. Egun sentiko eguaireakin batera, gabak baster guzietaraño zabaldutako illuntasun tristea aldeguiñez zijoan gueldi gueldi. Izartarren munduan ozta zegoan zeruarguirik; beren tiztiadura ukatu naiean, batak besteen ondoren asi ziran denak gordetzen, eta illarguiak galdu zuan ia bere zillar koloreko argui ederra. Ipar-aizearen igurtzira, jardiñ eta baratzetako lore polit intzez bustiak jarri ziran zerura beguira, arnas-eguin bakoitzean artzen zuten goiz goizeko aize fresscua usai gozos beteta beren aldamenean banatzen zutela.

Jerusalen-go erria zegon isiltasun aundienean; bere echeetako tellatugañerañoko guzia ezarritzen zuan oraindik iñuntzak, bañan eguzkiaren lenengo printzak azaldu ziranean, bertatik iriki zan zerua garbi, eder eta alaia.

Etzeuden garai ontan jende guziak lo Jerusalen-en; baziran, naiz guchi ernai asko zeudenak eta prestaerak eguiten ari ziranak Jesus-en illotza ipiñi zuten obira joateko asmoan. Biotz aundiko emakume Maria Magdalena ta onen lagun beste bi Maria, aurregun gaba logabeturik igarota, eldu zanean igande goiza, irten ziran Jerusalen-dik Jesus-en illotza likurtakin guntzatzera, esanaz beren bidaldian alkarri;—bañan ¿nork kenduko digu obia ichitzen duan arri-losa?—Irichi ziranean obira, aurreneko beguiratuan ikusi zuten obi-gañeko arri-losa amildua, eta aurrerasseago, eskubialdean eserita, bere inguru guzian argui errañuak zabaltzen zituan elurra beziñ soiñ zuriz jantzitako galai gazte bat, eta onek esan zien:—badakit noren billa zabiltzaten, nai zenduteke gurutz-iltzatu duten Jesus Nazarenoa; piztu da, ezdago emen; beguira bera ipiñi zuten lekua...

Ordu guchi aurretik Jesus maitagarriaren illotza obian zegon maindire garbi garbian bildua, illunpean eta eriotzaren mendean. ¡A! ¿Nun dira, esan zitekean, aren arpegui gozatsuaren lengo edertasuna, aren begui modestitsuen lengo beguiratu biguña, aren gorputz lirañaren lengo sasoia? Guztiz zegon itsusitua; bañan ez luzarorako.

Jaungoiko Guzialduna alpetu zan illotz artzaz, legor eta iguerturik zeuzkan zaiñ aietan zabaldu zuan odol bizieraguillea oparo, eta osasun eta bizitasun lengoak birtuzizkañez gañera, apaindu zuan gorputz doatsuai dagozkioten doai ederrez. Beriala azkatu ziran eriotzaren loturak eta juduak obia iñork iriki ez zezan ipiñi zituzten eragozkotak autsirik alchatu, zan Jesus-en gorputz bedeinkatua eta, obi gañeko arri-losa amilduta, lurrikara baten ots bildugarrien erdian, irten zan ariñ arguitara edertasunez betea, liraña, arrigarriro arguiz koroatua eta aiñ galaitero apaindua, ez dala mingañik ez guisonaren adimenturik bear añean adieraztera alderatuko danik.

Era onetan gure Salbatzalle maiteak, bere ikusgarrizko piztuera onekin, humildu zuan mundu arroa, garaitu zituan pekatua, eriotza ta infernua, utzeguiñezko itzalpean zegon fedagetar erria biurtu zuan Jaungoikoagana eta, itz batean bukatzeko, obratu zuan sekulan munduak eguin duan gaidade edo misteriorik aundiena, mirakiñena ta arrigarriena.

K. AMONARRIZ.

EUSKALDUN ERDALZALEA

Aizeak erein eta ekaitzak bildu

I

—¡Arraio arraia! Ztek mutill makala.

—¿Nor?

—*Kandelas*.

—Eztirudi ba pizkor pizkorra ere.

—¿Ez?

—Ez.

—Alajaiña, urtebete baño eguin ez Bartzelonan ta...

—¿Ta?... ¿Zer ta-ta-ta?

—Dotoria etorri dala.

—¿Nola?

—Biboteak beñepein...

—Etzuan Bartzelonara joan bearrik biboteak jartzeko.

—¿Eta aren gorbeta?

—Nere amonaren galtzerdi lokarria bezelakossea da.

—¿Eta aren lebita?

—Ezta arentzat eguiña.

—¿Eztela arentzat eguiña?

—Ez. *Kandelasek* oraindik eztauzka ogueitamar urte, eta lebita ark guchienaz berrogeitamar baditu.

—¡Zuk ori esatea!

—Galde eguiozu Kardetako beata zarrari, eta ark esango dizu.

—¿Zer dio ba?

—Garizumako ostiraletan kontzientzia dala *Kandelas*-en ondoan egotea.

—¿Zergatik?

—Bere lebitak koipe usai izugarria botatzen dualako.

—Ori da esana, baña ez izana.

—San Kristobalko sakristauak eskeiñi omendizkio ba lau peseta, bi eguneko lebita berari uzteagatik, eta gañera lebita oso ondo garbituko diola.

—¿Alkate jartzeko asmoak alditu Sakristau orrek?

—Ez.

—¿Zertako ote du ba lebita ori?

—Ur berotan garbitu, eta uzten duan koipearekiñ, pertzean salda eguiteko.

—Eta ¿zer eguiteko ustea du salda orrekiñ?

—Sopa.

—¿Zer sopa?

—¿Ez aldakizu nola San Kristobal egunian, meza nausi ondoan partitzen duten sopa Orbeletako Eliz aurrean?

—¡Ai, ai, ai!... *Bamos bamos*... baña...

—¿Zer baña?

—Ezta guero ori, zuek burla eguiteko guizona; apaiz eguiteko *estudiatzen* ibillia da guero ori ta...

—Ibillia... ibillia...

—Baita ikasia ere, beñepeiñ, meza emateko laiñ; eta... guero... *¡korchete!*... ¡um!

—Bai guizona, bai, badaki ori guzia eta gueiago ere.

—¿Gueiago ere bai?

—Bai; nik ikusi nuan ori Bartzelonan, *trabena* batian, meza emateko *zeremonia* eguiten.

—Nik sinistu orisse.

—Bai, neronek ikusia da.

—Ondo eguingo zuan; ¿e?

—Etzioten utzi bukatzen.

—¿Zergatik ez?

—Guziak chaloka asi ziran berealа ta...

—*Señale*, ondo eguiñ zuala.

—Bai; lenbiziko belaunikatzean, apaizari kasulla bezela, jaso zion laguntzalleak lebita, eta orduan ziran an chaloak.

—¿Zergatik ba?

—An aguertu zitzaizkion, prakipurdiaren bi zulotatik chinchillika bi alkandora-zati...

—Eztezazula esan orrelako barregarrikeririk.

—¿Zergatik eztet esan bear? ¿Eztiozu ba zedorrek ere Kandelas deitzen?

—Bai, ala deitzen diot.

—Ba orduanche jarria du izen ori.

—Nik aditu det ba, sermoiak eguiten ere badakiala guizon orrek.

—Guizona: meza ematen dakianak, sermoiak eguiten jakitea, ezta arritzeko gauza.

—Ba, *trabenan* eguiten omen ditu.

—Meza ere *trabenan* eman zuan eta orren sermoia ta meza, baditeke alkarren antzekoak izatea.

II

Kontuak kontu *biba los derechos endiabloales* (1). Onen gañian izan oi ziran Kandelasen sermoiak: eta aste bakoitzian *uelga* bat eguiñaz, eldu zan erriaren *Errentore* (2) izatera. Irichi zuan languilleentzat egunian ordu biz lana guchitzea, eta *jornala* gueitzea.

III

Igaro zan urte bete, eta egun batean *Kandelasek*, oso miñberaturik, esan zion bere emazteari.

—Arrigarria da, gure echean guertatzen dana.

—¿Zer ba?

—Len, guchiago irabazi, eta oraiñ baño obeki jan, eta obeki bizi guiñala.

—Egui andia esan dezu.

—Ala uste det.

—Baña nik ere esango dizut beste egui bat.

—Esan ba, esan.

—Bai; zuk kontuetan badakizu *sumar*; baña eztakizu oraindik *errestar* eguiñ, bai; eguiten dezu, baiña jakin gabe. Oraiñ ba *errestar* ere ikasi eguiñ bear dezu.

—¡Bai, zuk erakutsiko didazu!..

—Bai, ta berealasse. Len etziñan zu *trabenara* joaten; oraiñ lanerako orduak guchitu diran ezkero, egunero zoaz; len astean irabazten ziñuzen ogueita lau peseta; bat artan zenduan jairako eta ematen zenistan ogueitairu. Oraiñ irabazten dituzu o-

(1) Individuales.
(2) Redentor.

gueitazazpi, eta artzen dituzu asterako sei, eta guelditzen zaizkit ogueitabat: astean bi peseta guchiago, urtean eun ta lau... *Errestar*.

—Ori ere ezta ba mundu guzia.

—Gañera oguia ere len baño garestiago dago. *Errestar*.

—¿Zergatik?

—*Jornalak* gueltu eta lanerako orduak guchitu diralako. *Errestar, errestar*.

—¿Eta guk aldegu orren erru edokulpa?

—Zuk gueienbat, zure sermoe ta berriketakiñ, jentea orretara jarri dezulako. *Errestar*.

—¡Orisse da jarduna daukazuna!

—Lenago ere obe zendukean nere jardunak aditu izan baziñuz, baña aizeak ereiten dituanak ekaitzak biltzen ditu.

—Eta... ¿zer gueiago?

—Aurrerakoan ere izango dituzula, tripazorriak, praketan zuloak, eta pipermiñezko umoria.

—Beraz aurrera ere deituko didate «*Kandelas*»

—«¿*Kandelas?*» Baita «*errechiñes* ere,»

—¿Zer *erremedio* dago ba?

—¿Zer? Ikasi ezazu berso ausse:

Aurrera nai badezu,
Orla ibilltzea,
Sarri izango dezu
Utsikan eltzea (1)
Aizeak ereiñ eta
Ekaitzak biltzea,
Eta denbora baño
Lenago illtzea.

1903 ko Jorraillaren 6an

P. M.

(1) Eltzea.—Lapikoa.—Olla—Puchero.

ASTOA ETA IGUELAK

Asto bat zijoan beiñ
egur zamarekin,
pensamentu illunak
eguiñaz berekin.
Bide luzea zeukan,
aztuna zan zama,
oguei urte baziran
il zala aren ama.
Gañera zeukan guztiz
andia gosea,
etzan milagro triste
gaissoa joatea.
Zinguiradi batean
orra non dan sartzen
eta arrantz eguiñaz
asten da esaten:
Madarikatua, bai,
madarikatua,
Jainkoak niri eman
diraden patua.
Au entzutean ango
iguel kantariak,
ichi omen zituzten
beren belarriak,
ez aditzeagatik
aren deadarrak,
zeren bestela lertu
nai zituen farrak.
Batek esaten dio
saietzera joanik:
Eztago emen, jauna,
erremediorik,
ona gu ere nola
gueran emen bizi,
jaio guiñan ezkeroz
eztegu ikusi
beste gauzarik, baizik
loia eta ura,
ez izanagatikan
guztiz oien gura;
onelasse Jainkoak
dauka aguindua,
ezpalitz bezela da
guretzat mundua;
eta jakin bear du
(1) bere mesedeak,
miłaka, diotenez,
dira abereak
bizitzen diradenak
lurpean sarturik,
ikusten eztutela
sekulan arguirik;
aiek beti kontentu
omen dira ala,
¿eztegu izan bear
guk ere onela?
Bai, guk beti daukagu
umore alaia,
ezin eguingo degu
berdin gure naia;
konparatuaz aien
suertearekin
kontentu izango da
nor berearekin.
Au da guertatzen dana
munduko gaitzakin
baldin neurtzen badira
andiagoakin;
zu emen zaude orain
zinguiran sarturik
eta ateratzeko
eztezu kemenik.
Birauka asitzen da
Baina chito chito
iguelak deitzen dio,
beguirozu ito.
Gaur zure ezbearra
guztiz da andia,
baiña ezta oraindik
galdua guztia.
On da jakin dezazun;
da pazientzia
gaitz andia eguiten
duena chikia;
norbait etorriko da
ortik edo andik,
lagunduko dizuna
irteten emendik.
Au aditu ondoren,
aren mesedea
asi zan piskabana
artzen arnasea.
Egon zan gueldi gueldi
denbora luzean,
gaiñeko zamak zeukan
uraren gañean;
indarrak zitzaizkion
piskaka etorri,
eta irteteko gai
orra non zan jarri.
Zinguiratik kanpora
atera zanean,
astoak esan zuen
bere barrenean:
Nik emen ikusten det
gaur nere burua,
aditu dedalako
iguel konsejua;
bestela jira bira
arraz nekaturik
zinguiran gueldituko
nintzan ni itorik;
eztet nik ez aztuko,
da pazientzia
gaitz andia eguiten
duena chikia:
eta mundu onetan
nai duenak bizi,
zer nai guerta dakion
eztu bear etsi.

ITURRIAGAK.

(1) Jakin bear du berorrek.

PERU TA MARIA (2)

(Ipuiña).

Barregarri gueienak izaten dira eurentzat baiño iñorentzat egokiagoak, echerako baiño kanpokoentzat mesedegarriagoak. Peru, iñor bazan, barregarria zan; alperra, baiña burutsua, gorputz-aztuna ta buru-ariña, anka-zorra ta begui-zolia. Aspaldion eukazan laiak uguerturik, soloak latziñik (1), bedar galgarriak eurrez, eche basterrak amaraunez, edo aramusarez ondo apainduta, soiñekoak dindirri-urtika, idi-beiak guichi ta argalchak eurak, sukaldea otza, eche-aurreko garaia garau barik; eskintokia issilla ta oillo bakoa.

Peru, echean ezeukanen billa auzora sarrichuegui joanda, zorrizto bat zorriz baiño zoorrez beteago bizi zan. Gurasoak ichiriko ondasunak lurra jo bear eutsenean, aguertuten jakozan astean astean edo sarriago artzekodunak. Guastiai eguiten eutsen abegui ona, baiña abegui utsa, diru bako abeguia.

Artzekodunak aspertu zireanean guztiak bat eguinda iru eskribauri emon eutsen Peruri *embargo*-a eguiteko eskua. Eskribauak aurretiaz ots eguin eutsen Peruri esaten eutsela.

—Peru, aiñ egunetan *embargo*-a eguitera joango gozak.

—Etorri, ondoen derichazuenean.

Peruk orduan Mariari, zoko edo bazter batera eroanda, buruari azkura barik azka ta azka egoala, esan eutsan:

—Mari ¿badakin zer dirausten eskribauak? Astelenean gueurera datozala, basegun on bat igarotera.

—¿Bestetara ez?

—Ezetz diñoe.

—¿Gurean zer jagok ba arei zer emon?

—Erbikuma bi baiño besterik ezer ezton bear izango. ¿Auzotegui onetanche bat edo batek baedodaukaz erbikuma bi?

—Zerak daukaz: Maripa Ambrussenak. ¿Baiña nok ari atera? Len bere zerbait zor deutsagula ta, echok ezer emon nai izango.

—Orressegaitik emongoion ba; bestela lengorik eztabela artuko esaion. Zemai au asko ezpalitz, eskribauak datozana badakie ta arei jaten emoteko dala esan ezkero, emongo ionaz; bai, laster guero emon bere.

—¿Ta zelan ipinteko? Bazkari chacharra izango dok iru eskribaurentzat.

—Ik eguin, Mari, neure esana. Erbikuma bata neuk eroango jonat neugaz basora; bigarrena eukin euk ankatik ondo lotuta. Escribauak datozanean, nire gaide asitakoan, erbikumeari sokea azkatuta, berba onessek esango dautsanaz: «Mustur-zuri, oa Arraiz-ko sagastira, ta gure Peruri datorrela, eskribauak zain daukazala ta. Arin ibilli, mustur-zuri.»

—Peru: zoratuta nagoala esangoioek.

—Ik eguin neure esana, Mari, ta zoro-moro zerbait eguingo jonagu. Ez besterik ezer aitatu guero.

(1) Lur bat latziñik egotea da, bertan bera ichita ez ereiteko ez bedarretako erabiltzen eztana, onik edo probechurik emoten eztabena. Erderaz, *baldío*

II

Eldu zan astelena, ta astelen goizeko eguzkiaren atzetik izerdi-zapiak kapelapean ebezala eldu zirean iru eskribauak, euren mutill da guzti. Perugaitik Mariari itandu eutsenean, onek eskaratzeko chissillu-barrutik erbikumea atara, ankako lokarria azkatu ta esan eutsan.

—Mustur-zuri: oa Arraiz-ko sagastira ta gure Peruri datorrela, eskribauak zain daukazala-ta. Arin ibilli, mustur-zuri.

Berba onek eutzueran erbikumea iñoizko bizkorren joian, eskribauak arriturik egozan berari beguira, mutillak apurren baten jarraitu eutsen; da arik lasterchura aguertu zan Peru, erbikuma bat kaltzerpean ebala. Eskribauak zurturik, bidera urtenda, Peruri arrera ederra eguin eutsen.

—Egun on guizonak, gaur lango eguraldi bero zargoritan, illuntzerarte eneban uste aguertuko ziñeanik.

—¿Zelan jakin dozu ba eldu gareana?

—Arraiz-ko sagastian nengoan da arrapaladan Mustur-zuri etorri jat, Marik bialdu dabela ta zain zaukedazala esatera.

—¿Zelan ikasi dau ba berbetan?

—¿Zelan ikasten dabe jostunen zozoak soiñua joten? Onek bere bardin; neure ekiñen ekiñaz edozein mandatu eguiten ikasi dau.

—Orisse saldu bear deuskuzu, Peru'

—Ezta... ezta... ezta...

—Urtebete atzeratuko dogu *embargo*-a eguitea, arteetan zoorrai gueuk arpegui emongo deutsagu.

—Zeuek zareelako or dozue bada; bestela Erregueri bere eneukan emoteko usterik.

Erbi onegaz iru eskribauok euron bideetan joiazala, bati otu jakon erbi mandataria urrengo ostatura bialdutea. «Mustur-zuri, esan eutsan, joan ai or beeko aldera bidebarri ondoko ostatura ta ia sei lagunentzat bazkaria ipiñi al izango daben. Arin ibilli, Mustur-zuri».

Bai ta pozik joan bere; baiña eskribauak atzean ichi ebazanean, echakan erbiari bururatu ez ostaturik, ez bazkaririk. Igaro zan ordu erdi, ordu bete, ordu ta erdi... ta Mustur-zuri etzan aguiri. Buruari azka asi zirean eskribauok, zer esan ezekiela; mutillak, ugazaben issillik, barre eguiten eben. Onetan eldu zan eurakana Peruren auzoko Maripa Ambrusena, buruan pedarkada ura ekarrela.

—Egun on Jaungoikoak daguizuela.

—Bai zeuri bere. ¿Ikusi dozu or nunbait, chakurren iguesi edo, Mustur-zuri?

—¿Nor da Mustur-zuri?

—Peruk berbetan erakutsi ta menduriko erbia. ¿Eztakizu Peru nor dan, Peru Arraizpe?

—Bai ondo bere.

—¿Ta eztozu iñoiz ikusi besapean erbi bat dabela?

(2) Ipuin au Markiñar agera zaar batek gueuri esanikoa ta gure irakurla guztien gogokoa izango dala uste dogu,

—Nik eztakit beste erbi konturik aurse baiño. Atzo illuntzean banator kartetan chist eta chost arratzaldea igarota guero, banator echera ta «Maripa» entzun neban.—¿Eu az, Mari? ¿Zer nai?—Peruk diño biar bazkaritarako iru adiskide andi jatorkuzala ta erbi biak mesedez emoteko, urrengoan ordea emongo dabela». Au entzunda, emon neutsazan neure erbiak, ez bere ederrarren, zoorrak deustaz da, neuk erbiak emon ezik, ezautuko ezteustazanen bildurrez baiño.

Orduan mutillak asi zirean barre-santzoka, eskrikauak (bi beintzat) amurruarren mutillai aguiraka, atsoa zer etezan ezekiala pedarkada uraz aurrera, ta ordu-erdiren baten zer eguin ezekiela egonda guero, eskribauak Peru Arraizpe-gana bigarrenez joan zirean.

EKETAK.

(jarraituko da)

GUERNIKATIK

Lendan

Kortazubiko toki orretan beti leguez egon zan Erramu aurregunean eria edo feria.

Aurten beti entzuten egon gara nabo-bedarrak urri dagozala. Lendan bestera esan eikean, lengo urteetan baiño chal, idi eta bei lodi gueiago egon dalako, batez bere lenengotarikoak.

Kortazubiko Barruti derichon auzoteguiko idibat zan okelarik gueien eukana. Eun erralde baiño gueiago zala esaten eben, eta lau milla errielen gora saldu ebela. Beste chal, idi eta bei ederrik asko saldu zirean; baiña euren echeetara atzera eroan zituenak bere etzirean guichi, nok erosi euki ezagaitik. Au jazo dala diñoe, okela dendak ugaritu direalako, eta orretariko chal andien okelea ezin dabeelako saldu galdu baiño len.

Len idiak lodituten zirean gueien, orain zuizo bei eta abar sartu direan ezkero, onetariko chalak dabiz ugariago. Uste dot idiari ichi deutsen leguez, chal orrekaz bere gueratuko direala, dauken baiño urteiera obea artuten ezpadabe gauzok, eta bertoko bei endeari jarraitutera jarriko direala.

Lengo usadioa (1) balego elitzakez olan ibilliko, birietako eta agoeria derichoen gachak guichituko litzakez, eta orretatik datozan chal maketoari lepoko zulderretatik arrak eleuskioez aterako loditu orduko.

Ganera baserritarrak obeto urtengo leuke, bada orretariko bei endea chikiagoa dan leguez, zuizo chal bakochen ordez bertoko bi eukiko leukez, arek jan andikoak direalako; saldu barriz errezago eguingo leukez, eta okelea pozagorik erosi jan bear dabenak.

CHIMIST-ARGUIAK

Aspaldion deutse mormor orretariko arguidunakaitik, batez bere Munitibartik datorrenak beteten eztituela euren gurariak.

Oi dan leguez daukez zubillak ipiñita baso, solo eta motetan, ariak ganean dituela euretatik chimistea etorri daiten. Lur jaubeari zubill orreek olan eukiteagaitik ezeideutse ezer emoten. Ortik sortu dira kalteak eta esamesak, aiñ eratara eze, Munitibarko arguia eukeenak Aratoste gaubean gueratu zirean illunean. Gomuta ori bururatuaz bakarrik edonok atera leike, zer esana, zereguiña eta kaltea ugari egongo zana.

Chimist-arguiaren ariari egurren bat ganera jaurtiaz gueratu zala arguia esaten eben; eztakit nik alan bazan, ezta nok ez zegaitik jazo zan gauza ori bere.

Entzun deutsat bateri esames eta zereguiñ orrek eta euren antzekoak amatateko biderik onena dala, zubill eta ari orren azpiko lurra bear dan bestean jaubeari erostea. Bear-une larchua derichat.

Beste batzuk ostera diñoe, iñor ill eztaian chimisteak gabaz, zubill bakochari argui bana ganean ipini bear leuskioela, eta ganera, al dala, zubilla sartuta dagoan lur jaubeari argui bana edo zerbait diru urtearo emon, zegaitik bestela zubillok eukiteaz eta chimistea euretatik joateaz, kaltea eta arrizkua baiño besterik eztauken; basoan, zugatz edo arbola adarrik arieen urrean bear dan aukereaz azi ezin direalako; soloan, zubillen inguruan beti arduraz eta ikutu barik ibilli bear dabeelako, bai eurak eta baita buztarriko abereak, (1) eta zubilla aizeak lurreratu edo uzteldu daitenean barria ipiñi bear danean garia nai... dagozanean kaltea ugari euki leielako; atzenez jagolatzat dauken guizonak bere, beti mota nai osterantzeko gauzak zapaldu baiño besterik ezin leielako.

Gaurko naikoa dala ta nago, eta Jesusen eguitadeak gomutateko astea datorren leguez, agur eguiten deutsut Jaungoikoak gura daben arte.

A.

Jorraillaren 4.ª

(1) Tit. XXXIV ley V.

(1) Zubillari ikututiaz oztago zetan bildur izan; chimistea menast edo metal aritik aurrera doa zubilletik lurrera jatzi barik. Zubilletatik jatziko balitz, elitzake elduko bear dan tokira, guztia galduko litzake bidean. IBAIZABAL.

ZARAUZTIK

Artezkari jauna: IBAIZABAL-en 61.ª gueian eguin nituan, beste galdera batzuen artean: lenengo, eguia al zan Pasaia San Juanen arrantzaleen meza ondorengo avemariak aurtengo kostera denboran erdaraz esan dirala eta arrantzaleak euskaraz erantzun dutela.

Ill onen 5.ª artu det eskutitz bat Lezon eguiña, Tomas Kortaren ziskuarekin (firmarekin), zeñetan esaten didan, iñork eztiola erantzuten nere galdeari eta berak esaten didala eguia dala erdaraz errezatzen zirala, baita ere eguia dala arrantzaleak erantzuten zutela euskaraz, zergatik oben artean gueienak ziran Ondarru-

— 32 —

—Ikusi eguingo degu ori—esan zuan Angelek bere artean, eta zutikan egoteko indarrik ez iduki arren, jaiki zan oguetikan eta issil issillikan idiki zuan leioa, baiña aiñ illun zegoan eta alako aizerik zebillen eze, etzuan ez ezer ikusi ez ezer aditu. Ichi zuan leioa eta bazegoan oe aurrean.

Pinto eta Leon ari ziran gueroago eta estuago. Anjelek aditzen zituan len baiño obeto teilla otsak eta sukaldeko leioari eguiten ziozkaten bultzatuak.

—Ez, ikusi bear dut zer dan ori—esan zuan bere artean eta eskopeta artuaz joan zan sukaldera, nun zegoan argui motel bat, katillu baten olioaz jartzen zuana egunero andra Josepak, Anjel eritu zan ezkero.

Anjel sukaldera eldu zanean... ¡rau!.. edegui zan bat batera leioa eta arpeguia eta eskuak belztuta zeduzkan guizon bat aguertu zan bertan pistoleta eskuan zuela. Anjelek apuntatu zion bere eskopetarekin baiño tiroak irteteko astirikan gabe erori zitzaion eskuetatikan eskopeta, zatitua lapurrak tiratu zion pistoletazoarekin.

Lapurra, beste iru ondoren zituala, sartu zan salto batean barrura; eldu zioten danen artean Anjeli, bota zuten lurrera, estali zioten aoa zapi batekin eta lotu ziozkaten eskuak eta oiñak. Beste ainbeste eguiñik Don Jose eta andra Joseparekin, artu zituzten diru eta gauzarik onenak eta balio aundienekoak. Ongui ezagututzen zituan lapur aietako batek, eche aretako zokoak, bada zuzen billatu zituzten batere okerrikan gabe ondo iskutatuak zeuden ontzako zarrak eta beste gauza eder asko.

— 29 —

—¡Or konpon, Mari Anton!... Nik zeramazkiat bi pistoleta eta kañabeta.

—Gu goaz lapurretara eta ez eriotzarik eguitera —esan zioten ikazguiñak.

—Bakoitzak ondo datorkiona eguin dezala —esan zuan pistoletadunak — baiña eztezagun denboraril an galdu. Bidean ezango dizuet zer eguin bear degun.

Beltzitu zituzten arpeguiak iduri bustiarekin eta joan ziraden pagadia bera.

—¿Zergatikan eztator Michel?—esan zuan armatuta zijoanak.

—Chendorra betegarri eske dago eta bear da bat emateko — erantzun zuten ikazguiñak — gaiñera, aren lanak eztu guchiago balioko, guk eguiten degunak baiño.

—¿Nola izan lezake ori?

—Kantuan eguiñaz.

—¿Zertarako?

—Oñatitikan datozenak aditu dezaten, eta bigar edo etzi okerrikan balitz, esan dezaten San Miguel arratzean ikazguiñak pagadian zeudela.

—¡Mutill azkarrak zerate!

—Bai... eta eguin dezagun aberatzak izateko bidea.

Andikan ordu erdi batera zetozen Koroson barrena bi guizon, elatzean zinzilika dagoan abarka baiño igarragoak eta ukalondotikan ere berriketa zerioela. Zetozten bakoitzak bere kana bizkarrean zutela, eta loturik aien puntan aspandar pieza laurden bana.

Pagadi goenean aditzen zan kanta bat esaten zuana:

tarrak, eta erdera obengandik urruti dabill; gañera bertakoak ere, danok dakigun bezela, euskaldunak dira. Eztet uste goizaldeko ordu aietan belarrimotz askorik joango zanik meza entzutera.

¿Zer diozute irakurleak, ondo dagoala ala ez euskaldunak besterik arkitzen eztan eliz batean erdaraz errezatzea? Neri etzait ondo iruditzen, ez eta ere nik gauza onen gañean galdetu ditudan jaun errespetagarri jakintsuai.

Bigarren galdera eguin nuen, ondo ote derizkioten euskara goratzen jardun, eta izanik euskalduna, beti erdaraz mintzatzea, onek merezi duen euskaldunen izena. Galdera oni erantzun dio Burduntzik, esaten duela IBAIZABAL-en 63.ª gueian bere ustez ezetz... ez erdaldunen beraren ustean ere.

Nere ustean Burduntzik erdaldun euskaranganako beguiramen ona dutenak billatu ditu, eta da poza artzekoa; nik eztet orrelakorik billatzen, baña bai kontrara euskaldunak erdaldunekin naste marmarrean ari diranak euskaraz mintzatzen diranengatik; nonbait jakinduria erdaraz mintzatzean dago, Aizgorriko mendia baño aundiagoko astakeriak boteaz.

Sarritan egoten naz emengo burnibideko echian nere artean esanaz: eztu jendeak jakingo emen dauden jarduera (1) dutenak euskaldunak diranik, zergatik erdaraz ezercho aditzen eztutenak ikusten ditut nola mintzatu eztakitela.

Aurrerontzean batere beldur gabe mintzatu euskaraz gueltoki onetan; aguintari bere ondorengo danokin euskalduna da, oso euskalzalea. ¿Badakizute zein dan? Da Praisku Arriola, zeñaren ziazkua IBAIZABAL-en sarri ikusten dezuten.

Marchoko illean erriko sisak eman dituzte 5.000 peseta 14 zentimorekin.

Agur, pazko onak igaro, urrengo arte.

JENARO ELIZONDO.

Jorraillaren 7.ª Zarautzen

(1) Empleo.

ZARRAPARREA

Lengo asteko zapatuarratzean eldu jakun echeonetara Begoñako gure eusle edo suskritore bat, esatera etzala eguia guk azkenengo gueian eguiten guenduen itaunea. Obe da alan.

Aurten, okerren bat gueroago ezpadator, fruta urte ederra izango da. Lora asko emon dabe zugatz edo arbolak, eta guztiak gogortu dira; alan ikusten dira keissa, madari, sagar, eta abar, alez edo garaunez bete beterik. Beintzat, ori ikusten da Durango aldean, eta gogoraturik errialde aretan langosse eguraldiak izan direala, negu ta udabarri, Euskalerriko beste aldeetan, uste dogu an leguez egongo direala fruta arbolak beste toki guztietan.

Orain, Jaunak gorde daiguzala ondo eldu arte, gure baserritarrak igazko ezetza bardindu daien.

Joan direan egunetan zarraparra galantak izan dira Españiako uri askotan, batez bere Salamankan da Madrillan. Uri-jagole edo *policía*-ko batek belarrondo batzuk emon eutsazalako ikasla edo estudiante bati, joan zirean aldran ikaslok gobernadoreagana belarrondokoak emon zituana kentzeko bere enpleotik eskatutera, bide batez argui-mutill edo farol da gobiernu echeko kristalak ausiaz; urten dabe guardia-zibillak, asi dira tiroka, ta ill dituez bi mutill, beste gueiago zaurituta ichirik. Au jakin danean, Madrillgo ikaslak bere urten dabe kalera, ta eurakaz ikasla eztirean beste askok; an bere ouki dabe jasarren bat uri-jagolakaz, da oneek ill dabe guizon bat, ikaslea etzana. Baketu dira ia.

Orretariko guertaeretan jazoten dana da beti, dabillen nastean euren alde zerbait eguin gura dabeenak sartzea; edo norbaiti kalte eguiteko, edo lapurretan eguiteko, edo astakeriak eguiteko. Esaterako: denderu guizajoa otoz otuan artzen badabe dendea zabalik daukala, erakusteguiko kristalak ausi ta ostuko deutsez an daukazanak, eta ¿zer erru dauka onek guardia-zibillak gogorregui ibilli badira? Kaleetako argui-mutill eta Erri-echeetako kristal guztiak ausiaz ¿nori kalte eguiten jako, gueure buruai ezpada, errienak direanez guztioenak dira-ta? Zaragozan joan zirean Jesuiten echera arrika eguitera astapilla bat ¿zer dauke zer ikusi bake bakean dagozan Jesuitak, Salamankako gobernadore ta guardia-zibillakaz darabillen auzian?

Datorren Maiatzaren bigarren alderdian izango da *automovil* edo burtariñen ariñeketa edo lasterketa, Pari seta Madrill bitartean

Orain arte 332 burtariñ eidagoz berbatuta Paris-ko Burtarin Batzokian (1), da uste da lasterketa eguingo dan egunetarako askoz gueiago berbatuko direala. Ganera, berbatu bagakoak bere ugari izango dira besteakaz batera ibilliko direanak bideetatik.

Eztakigu egun baten igaroko direan burdi guztiok Irun-dik Bitoriarako bidebarritik; baiña nai egun baten izan nai egun bian edo iruan izan, bide orretan iñor ezin izango da ibilli orduan, ez burdiakaz ez abereakaz ez oiñez ez edazetora.

Aberatzen burukeri edo *capricho* bat baiño ezta guztia, baiña obe da bidea zabal istea, ango egun bategaitik. Kontus, baserritarrak, egun orretan.

(1) *Automovil-Club*. Orain badakit esango dozuena askok, barre eguinda ¿nundik arrano ateraten dozuez berba orreek? Bada... euskeratik. *Automovil*-ak euskeraz eztauko izenik, gueuk dakiguia, ta zelan edo alan euskeraz jesatearren *burtariña* deitutea bururatu-jaku.
Automovil griegoen izkuntzako berbea da, ta esan gura dau *berez igaituten edo ibilten dana*. *Burtariña*, arin ibilten dan burdia, *burdi-ariña*, *burd-ariña*, *burtariña*.
Parkatu, guizonak, azarkeria edo atrebedentzia.

LA EDITORIAL VIZCAINA derichoz moldaguintzan
Gran Via, 26 eta Ledesma, 15.

Goiz, egüerdi eta arratz
Beti porru salda,
Koipatzu nai izatea
¿Arrazoi ez alda?
Burrun burrun bun
Koipatsu nai izatea
Burrun burrun bun
Arrazoi ez alda.

—Michel deabru orrek eztik beste amesik kapañeri burla eguitea baiño—esan zuan batek.

—Eori ere ez aiz ba issillikan egotekoa—esan zuan lagunak—¿zergatik erantzuten eztiok? jakiñik ik dakizkan bezela, ichu batek aiña kanta...

—Aspaldi onetan joan zaizkidak kantatzeko gogoak, Don Josen echean igarotzen danarekin.

—Arrazoia duk; chit damugarria duk indianoari guertatu zaiona.

—¡Anjel guizajoa! Sinistu zak, baldin da baldin ura iltzen baduk gure Manuri etzaiok sekula beguirikan legortuko.

—Berak eman ziokan lenbiziko bularra, eta nai zioagu gueure seme bat balitza bezela. ¿Eta Don Jose guizajoa? Ikusiko duk Anjel iltzen bada, laster jarraituko ziok ondoren.

Ala itz eguiñaz bazijoazen kapaiñak eren bidean eta Michel guelditu zan gueroago ta gogozago kantari.

VI

San Blas-eko apaiz jaunaren echea zegoan inchaur arbolaz inguratua, eta eleizatikan ogeirenbat

kana bezela; zan arlanduzkoa eta egoe aldera zedukan baratza eder bat.

Alde onetarasse zeuden lo eguiteko guelak eta bai ere sukaldea. Sukaldeko leioan azpian zegoan echecho bat, nun idukitzen zituzten, zimaurraz gañera, achur, laia, eta osteango joan-etorriak.

Denbora aretan oitzen zuten nola pobreak ala aberatzak, goizean goiz jaikitzea eta orregaitikan, arratzeko zortzirak ezkero aundi eta chiki egon oi ziran ankaz gora.

Lenbiziko loa izan oi da gozoena eta astunena. Don Jose lo bete betean zegoan, andra Josepa ere bai; Anjel bakarrikan zegoen ernai zergatik naiezak loa galerazitzen zion. Zakurrak okulluan asi ziraden zangaz.

—¡Osaba!—deitu zion Anjelek Don Joseri alboko guelara.

Apaizak etzion erantzun, zakurrak etziraden issiltzen, eta ¡osaba! ¡osaba! deitu zion bigarren aldiz illobak.

—¿Zer nai duk Anjel?

—Pintok eta Leonek estu zaunkatzen dute, eta iruditzen zait echechoko teillatuan nor edo nor dabillela.

—Bai... aizeak erabilliko zituk teillak eta zakurrak orrengatikan zaunkaz ariko dituk,

Leon eta Pinto ari ziran gueroago eta garratzago, norbaitek larrua kentzen bazioten bezela.

—¡Osaba!—deitu zuan berriro Angelek—uste dut sukaldeko leioari bultza eguiten diotela.

—¡Ez adi chorua izan Angel!—esan zion Don Josek erdi lotan—aizean otsak dituk oik.